

Irati Yarza:

“Gimnasia egunero dago zerbait hobetzeko”

14 urte ditu ermuar honek. 7 urte zituenetik, gimnasia munduan dabil buru-belarri. Gaur egun Eibarko Ipurua taldeko kidea da. Iaz taldekako sailean Gipuzkoako txapelduna izan zen eta Euskal Herriko hirugarren postua lortu zuen. Abenduaren hasieran Espainiako txapelketan izan zen, lan polita burutuz.

- Nolatan hasi zinen gimnasia munduan?

Zazpi edo zortzi urte inguru izango nituen. Ermuko taldean hasi nintzen eta orduan jolas bat zen niretzako, baina pixkanaka hobetzen joan naiz eta momentu honetan federatuta nago Eibarko Ipurua taldearekin.

- Ordu asko entrenatzen duzue?

Astearte eta ostegunetan izan ezik, astean 5 egunez entrenatzen dugu. Hogei ordu guztira.

- Zer da lantzen duzuen?

Musika, koordinazioa eta, batik bat, malgutasuna. Oso gazte hasi arren, adinarekin pixkanaka malgutasuna galtzen joaten zara eta behin galdutakoan zaila da hori berreskuratzea. Dena den, gimnasia egunero dago zerbait hobetzeko.

- Gazte asko dabil gimnasia munduan?

Bost urtetik hasi eta makina bat gazte gabiltza honetan. Eibarren, mutil bakarra dago talde osoan.

- Euskal Herrian zelako maila dago?

Jendeak uste baino jende gehiago dabil honetan. Donostian, Bermeon, Bilbon eta Gasteizen oso maila oneko taldeak daude. Almodena Cid, munduko txapeldun ohia, Gasteizko taldetik atera zen, besteak beste.

- Urtean zehar makina bat txapelketa dituzue...

Urtariletik ekainera bakarkako txapelketak izaten ditugu eta abuztutik abendura taldekakoak.

- Iaz emaitza onak lortu zenituzten.

Taldea Gipuzkoako txapeldun eta Euskal Herri mailan hirugarren postua lortu genuen. Abenduaren hasieran, Logroñon izan ginen Espainiako txapelketan eta lan polita egin genuen.



- Pelota, uztia, soka, maza, zinta... zein duzu gustukoen?

Niri pelota gustatzen zait batez ere. Halere, hortxe moldatzen naiz okerrin.

- Zer moduz ikasketekin?

Momentuz moldatzen naiz. Kirol honek ordu asko eskatzen dizkit eta gogorra da Eibarko entrenamenduetatik etorri eta hurrengo egunean azterketa izanez gero, ikasten hastea. Amak

ere sarritan gogoratzen dit: “Hau bai, baina ikasketetan ere pentsatu ezazu”.

- Zer izan nahi zenuke etorkizunean?

Umetatik aktore nahi izan dut eta horixe landu nahiko nuke etorkizunean.

- Aurtengo urterako helburua?

Bakarka, Euskadiko Txapelketarako sailkatzea da nire helburua.

Asier Ibaibarriaga



**CITROËN
AUTOS AMEDI**

Zearreko buelta 3 L8 pab.
Tel. eta Faxe. 943 17 04 14

**solozabal
tabakoak**



torrekua 1
tel./fax: 943 17 07 33



**dulce
bebé**
DULCE
BEBÉ
PEQUE'S

**Eskaintza
handiak
puerikulturari**

Zubiaurre 30 · ERMUA
943 170 005